

#DONOSTIA
#SAN SEBASTIÁN FESTAK

Abuztua
15
agosto



Arkaitz Añorgako Dantzariak

2019
Aste Nagusia
Semana Grande
Donostia
San Sebastián
Abuztua 10-17 Agosto

Konstituzio
Plaza
12:30



 donostiakultura

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

#DONOSTIA
#SAN SEBASTIÁN FESTAK

Abuztua
15
agosto



Arkaitz Añorgako Dantzariak

2019
Aste Nagusia
Semana Grande
Donostia
San Sebastián
Abuztua 10-17 Agosto

Konstituzio
Plaza
12:30



DK donostiakultura

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Gipuzkoako dantzen tradizioan toki nabarmena dute Añorgako Dantzariak, besteak beste, urratsetan, doinuetan, eta koreografian. Añorgako lehen dantza-maisua Jose Lorenzo Pujana izan zen, eta 1926an hasi zen Añorgako gazteak trebatzen. Pujanak Juan Inazio Iztuetaren ikasle izandako Jose Antonio Olanorekin ikasi zuen.

Joan den mendeko 70eko hamarkadan, Añorgako dantzari eta musikari ugari Donostiako Argia taldean hasi ziren dantzan, Juan Antonio Urbeltz ikertzailearen eta koreografoaren zuzendaritzapean, eta garai hartako kultur ezteandako partaide aktiboak izan ziren. Ondorengo dantzari-belaunaldiak, Euskal Herriko probintzia guztietako dantza gehienak ikastearekin batera, Urbeltzen ikuskizunetan aritzen dira ordutik.

Arkaitz taldeak gaur egun ezagutzen dugun egitura 80ko hamarkadatik aurrera hartu zuen. Haurrentzako dantza-eskola sortu zen, eta nagusien taldeak Euskal Herriko tokian tokiko dantzekin osatutako emanaldiak egiteari ekin zion.

2009an Añorgako Dantzariak berriz ere hasi ziren Ezpata-dantza eta Brokel-dantza egiten, XXI. mendeko gizartearen ezaugarrietara egokিতuta, eta ordutik Karmen Egunean, uztailearen 16an urtero egiten dute Añorgako frontoian. Modu horretan, añorgatarren komunitatea sendotzen dute dantzaren bidez, eta Añorgaren nortasuna erakusten dute etenik gabeko tradizio biziarekin. Era berean, Euskal Herriko kultur ondareari balio handiko ekarpena egiten diote, Gipuzkoako dantzen erreferentetako bat diren neurrian.

El grupo Añorgako Dantzariak ocupa un lugar especial en la tradición guipuzcoana de los bailes populares, fundamentalmente en lo que respecta a pasos, melodías y coreografías. El primer profesor de baile de Añorga fue Jose Lorenzo Pujana, quien empezó a enseñar a los jóvenes añorgatarras en 1926. Pujana estudió con Jose Antonio Olano, quien fuera discípulo de Juan Inazio Iztue.

En la década de 1970 muchos bailarines y bailarines y músicos añorgatarras comenzaron a bailar en el grupo Argia de Donostia / Sebastián, bajo la dirección del investigador y coreógrafo Juan Antonio Urbeltz, y participaron activamente en el boom cultural de la época. Las siguientes generaciones de bailarines y bailarinas, además de aprender bailes de todas las provincias del País Vasco, siguen participando en los espectáculos de Urbeltz.

A partir de la década de 1980 el grupo Arkaitz asumió la estructura que conocemos actualmente. Se fundó la escuela de baile infantil y el grupo de adultos comenzó a crear espectáculos con bailes populares de todo el País Vasco.

En 2009 Añorgako Dantzariak retomó la Ezpata-dantza y la Brokel-dantza, adaptadas a las características de la sociedad del siglo XXI, y desde entonces las baila todos los años el Día del Carmen, 16 de julio, en el frontón de Añorga. Así, a través del baile refuerzan el espíritu comunitario de Añorga y muestran el carácter añorgatarra con una tradición viva e ininterrumpida. Y al mismo tiempo, en la medida en que son uno de los referentes del baile guipuzcoano, hacen una aportación muy valiosa al patrimonio cultural del País Vasco.

Egitaraua / Programa

ORDUA / HORA: 12:00
Alde Zaharreko kaleetan zehar
Por las calles de la Parte Vieja

Ezpata-dantza

ORDUA / HORA: 12:30

Konstituzio plaza / Plaza Constitución

Ezpata-dantza

Brokel-dantzaren zikloa:

Agurra

Boastitzea

Belauntxingo

Uztai-dantza

Brokel-dantza

Makil-dantza

Makil handien dantza

Zinta-dantza

Uztai handien dantza

Soka-dantza

